

BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

3015

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 23koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez garapenerako lankidetza-programen exekuzio-faserako laguntzen deialdia ebazten baita, 2025erako.

Azaroaren 28ko 180/2023 Dekretuak Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak arautzen ditu (2024ko urtarrilaren 12ko EHAA, 9. zk.).

ELankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2025eko martxoaren 18ko Ebazpenaren bidez, garapenerako lankidetza-programen exekuzio faserako laguntzak emateko deialdia egiten da, 2025. urterako (martxoaren 27ko EHAA, 60. zk.).

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 13. oinarrian ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin-dako proposamena ikusita, eta Hautaketa Batzordeak laguntza-eskabideen azterketa teknikoa eta balorazioa egin ondoren, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean jasotako entitateei ematea eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2025eko martxoaren 18ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak (Ebazpen horren bidez, garapenerako lankidetza-programen exekuzio-faserako laguntzen deialdia egiten da, 2025erako), eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta baldintzetan.

Bigarrena.— II. eranskinean ageri den entitateari laguntza-eskaera ukatzea, funtsak agortu direlako.

Hirugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako Lehendakaritzari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu eta hiru hilabeteen ebazpena eman ez bada, errekurtoa ezetsitzat joko da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzibidea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 23a.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER CORTÉS FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PGM-2025EX/0004	Oxfam Intermón Fundazioa	Zaintzen duten hiri eta komunitateak: genero-berdintasunerako eta bizitzaren jasangarritasunerako estrategiak	Bolivia, Euskadi	76	999.999,99
PGM-2025EX/0001	Bizilur - Herrien Lankidetzeta eta Garapenerako Elkartea	Europako eta Latinoamerikako nekazaritza- eta hiri-aliantzak: aukerako estrategia eraikitzen	Brasil, Kolonbia, Txile, Euskadi	72	999.994,97
PGM-2025EX/0002	Mugarik gabe Elkartea	Eskubide kolektiboen eta herri indigenen defentsa, justizia klimatikoaren ikuspegitik, trantsizio ekosozialaren erronken aurrean	Guatemala, Euskadi	63	999.999,99
PGM-2025EX/0003	Mundubat Fundazioa	Emakumeen bake-agenda sustatzea	Mali, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Senegal, Mauritania, Euskadi	61	999.999,99

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK FUNTSAK AGORTUTA EGOTEAGATIK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak
PGM-2025EX/0005	Calala Fondo de Mujeres Fundazioa	Mugimendu feministak elkarrekin eta indartsu aritzea, gorroto-diskurtsoen kontra mugaz gaindiko aliantzak ehuntzeko Erdialdeko Amerikan eta Euskadin	El Salvador, Euskadi	53